


PR®- NA 203 MATA DE HAYA LARRERIA ZEMETO



HASIERA:
 NA-137. Km 45,5

OHARRA:
 •BELAGUA IBAIA
 •BITXITOZA ERREKA

•Gerta daiteke neguan elurrak bidea estaltzea, kontu handiagorekin ibili hilabete horietan. Gainera zonaldean laino lodiak sarri agertzen dira, hortaz, beharrezkoa da urte osoan zehar beroki arropa eta GPS-a eramatea.

Ibilbide zirkular gogor hau Belaguako txokotik Larreriako Erreserba Naturalaren bihotzeraino doa, pagadi eta goi mendiko paisaia harritsu eta basati asko zeharkatuz. Luzea ez bada ere, aldapak oso pikoak dira; beraz, ezinbestekoa da sasoian egotea ibilbidea egiteko. Bagomaltatik, ibilbidea ekialderantz doa SL®-NA 81ekin bat egiten duen tarte batean, ondoren Bitxitozako erreka-zulorantz jotzeko. Larreriaraino igoera pikoak egin ondoren bidea GR12®rekin elkartzen da tarte batean, eta handik beste lepo batera jarraitu behar da, pagoen arteko jaitziera ederrari ekiteko. Zemetoko behatoki ikusgarritik igaro ondoren Bagomaltara itzultzen da, lehenik bidexka batetik eta gero errepidetik.